Badatorrela!

ZURE LENTEEN EROSKETAREKIN
MONTURA DOAN
+
2. betaurrekoa
OPARI

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA
MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua
www.multiopticas.com

"Herriaren izaeraren parte da Maratoia"

PEPI ARSUAGA ETA MAITANE EIZMENDI FAMILIA BEREKO BI KIDE, ZORTZIKOTEAN

1992. urteko Euskararen 3. Maratoian parte hartu zuen Pepi Arsuagak zortzikotean. Maitanek, berriz, aurten biziko du oholtza gainetik lehen aldiz

Maddi Zaldua

Lehertzear da Euskararen 10. Maratoialdia; 40 orduko euskararen festa handiak hartuko du asteburuan, hilak 22 eta 23 Lasarte-Oriako Okendo plaza. Programazio erakargarria prestatu dute antolatzaileek, Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak, eta festaren parte egin nahi dituzte herritar guztiak. Lau urtean behin –azkena duela sei urte egin zen, Covid-19ak eragindako osasun egoera medio–, aurten ere osatu dute zortzikotea. Eurak izango dira oholtza gainetik etenik gabe uneoro gertatzen dena dinamizatuko dutenak, eta, noski, gainerako parte hartzaile guztiekin batera, herritarra gozaraziko dutenak. Maitane Eizmendi Nogales izango da talde horretako kide gazteena aurten. Bere amona Pepi Arsuaga Tapiak animatuta ariko da zortzikotean, izan ere, amonak badu esperientzia zeregin horretan. 1992. urtean, Euskararen 3. Maratoian berak ere, beste zazpi herritarrekin batera, osatu baitzuen orduko zortzikotea. Bidenabar, bi belaunaldietako senideak elkartu ditu TXINTXARRI-k, euskararen jaia nola bizi duten galdetzeko.

Familia bereko bi belaunaldi eta biak Euskararen Maratoiko zortzikotean; bat aritua eta bestea aritzear. Zeinen polita, ezta? Nola bizi duzue hori?

Pepi Arsuaga eta Maitane Eizmendi: Oso polita, bai. Guk aldarrikatzen dugu euskararen erabilera, eta, Euskararen Maratoia defendatzen dugun horrekiko aurpegia emateko eremu bat da.

Zuk, Pepi, zein urtetan parte hartu zenuen zortzikoteko kide gisa Euskararen Maratoian?

P.A.: 1992. urtekoan aritu nintzen zortzikotean; duela 30 urte. Hirugarrena izan zen, eta *40 ordu? Errex!* leloa izan zuen ordukoak.

Maitane biloba (ezkerrean), Pepi amona ondoan, Maratoiko armairua atzean dutela. TXINTXARRI

Eta nolako esperientzia izan zen? Gogoratzen dituzu han bizitakoak?

P.A.: Noski, nola ahaztuko ditut bada! Esperientzia ona izan zen. Bizipen asko nabarmendu nitzake ona izan zela azaltzeko, baina, batez ere, herriarekiko gertutasuna azpimarratuko nuke. Ez naiz sekula jendaurrean gisa horretan aritu, eta protagonista izateak larritu egiten nau. Lotsa handiz bizitu nuela ere ez dut ahaztu eta hori oztopo izan zela ere ez, baina poz handiko egunak izan ziren. Guztiaren gainetik, oso etxeko sentitu nintzen, gustura.

Ederki antolatu zuten ordukoa ere, beti bezala. Iñaki Arruti eta Pablo Suberbiola gogoratzen ditut etengabe atzeko lanetan, beste hainbaten artean.

Zertan aritu zinen? Dantza eta kantu egin zenuen? Antzerkitxoren bat?

P.A.: Ezer askorik ez nuen egin, arestian esan bezala, oso lotsatuta egon bainintzen. Gogoan dut etorkizuna iragarri niela zenbait herritarri. Miren eta Manoli Zumeta ahizpen ama Joxepa Egiari, eta, baita Begoña Aranzadiri ere.

Gozatu bai, baina nekea ere antzemango zenuen, ezta?

P.A.: Ez, batere ez. Gaur egun nekatzen naiz, baina orduan ez zegoen nekerik.

Zuk, ordea, asteburu honetan, hilaren 22an eta 23an biziko duzu lehen aldiz Euskararen Maratoia zortzikoteko kide gisa, Maitane. Nolakoa izango dela aurreikusten duzu?

M.E.: Azkar igaroko dela iruditzen zait; askotan gertatzen den bezala, zerbaiti martxa hartzen hasten zarenerako amaitu egiten da. Pentsatzen dut, hasieran urduritasuna eta lotsa ere sentituko dudala, baina pasako da. Esperientzia bizitzeko gogoz nago.

Bezpera da gaur. Dena prest?

M.E.: Bai, dena prest. Antzematen dut urduritasuna, zirrara, baina esperientzia bizitzeko gogoa baita ere. Gozatzera irtengo naiz taula gainera, eta hala izatea espero dut.

Aurreprestaketak ere eginda daude. Hasieran, bi astean behin batzen ginen, baina, uda ostean, astelehenero bildu gara. Zaldibian ere izan ginen asteburu batean. Bilera egin, elkarrekin bazkaldu eta mozorroak erostera joan ginen Jaiak dendara, Agus Mujika *Takolo*-ren negoziora. Beste astebururen batean edo ere, beharra ikusi dugulako elkartu izan gara. Programazioa

"SEKULAKO HARROTASUNA DA NIRETZAT MAITANE BILOBA ZORTZIKOTEKO KIDE IZATEA"

itxita, horrek funtziona dezan azken detaileak lantzen aritu gara azken egunotan. Hemendik aurrera esperientzia bizitzea baino ez da geratzen.

Nola jaso zenuten zortzikoteko kide izateko proposamena?

P.A.: Hori ez dut ongi gogoratzen, baina, uste dut Sebastian Kerejetaren bidez jaso nuela... Adineko herritarrak ere nahi zituzten oholtza gainean, eta hortik iritsi zitzaidan parte hartzeko gonbita. Oker ez banago, ni izango nintzen adineko lehen zortzikoteko kidea; 52 urte nituen orduan.

M.E.: Yogara bidean nindoala egin zidaten proposamena. Gogoan dut euria ari zuela, eta lasterka nindoala. Kuadrillako lagun batek deitu zidan, Mirari Zorzanok. Bat-batean, bere amak, Rebeka Garcesek (zortzikoteko kidea da bera ere) nirekin hitz egin nahi zuela esan zidan. Hortxe egin zidan proposamena.

Une horretan apur bat blokeatuta geratu nintzen. Zalantza asko nituen, eta erantzungo niola esan nion. Yoga saiotik bueltan, etxera iritsi eta gurasoei kontatu nienean, konturatu nintzen beraiek bazekitela zerbait eta ordura arte ez zidatela ezer esan, barrez hasi baitziren biak.

Oroitzen dut esan niela lagunekin festa giroan gozatzeko asteburu polita izan zitekeela, baina, aitak erantzun zidan etorriko direla oholtzatik behera bizitzeko aukera gehiago, oraingoan, agertokitik bizi eta goza nezakeela.

Gertuko lagun bati ere deitu nion proposatu zidatena kontatzeko, eta gogoan dut asko hunkitu zela. Etxeko eta inguruko guztiek ikusi dute begi onez, hasiera-hasieratik.

Gomendiorik eman al diozu bilobari, Pepi?

P.A.: Nik baino hobe egingo zuela eta ezezkorik ez emateko, animatzeko esan nion; Asko gozatuko zuela. Poz handia sentitu nuen bilobak hori kontatzeko deitu zidanean; sekulako harrotasuna da niretzat Maitane zortzikotean aritzea.

Eta, zuk, Maitane nola jaso zenituen amonaren aholku horiek?

M.E.: Amak esan zidan amonari deitzeko, eta gonbita egin zidaten gau horretan bertan hitz egin nuen berarekin. Ondo jaso nuen berak esandakoa. Galdetu zidan, Maratoia iritsi eta zortzikotean, nire lekuan beste inor ikusita zer sentituko ote nuen.

Aholkuak entzun ostean, ezezkoa emateko aukera gutxi nuen kar, kar, kar, ez neukan ez parte hartzeko aitzakiarik.

Gogoratzen dituzu zurekin batera nortzuk aritu ziren zortzikoteko kide gisa duela 30 urte, Pepi?

P.A.: Nola ez, oso ondo oroitzen ditut gainera! Joxe Mari Agirretxe, Iñaki Petxarroman, Nekane Lartzabal, Agus Mujika, Aitor Atxega, Ixabel Bereziartua, Natxo Izeta, Pepi Arsuaga eta Bixente Beltran.

Horietako askorentzat ez zen lehen urtea, bazuten esperientzia Euskararen Maratoiko oholtza gainean, baina niretzat lehena eta azkena izan zen; nahikoa. Hori bai, agertoki behetik aldiro bizitzen dut.

Pepi Arsuagak iragarle lanak egin zituen duela 30 urtekovMaratoian. Irudian, Joxepa Egia eta Begoña Aranzadi ageri dira. TXINTXARRI

Eta zuk, Maitane, nolako zazpikotea duzu ondoan?

M.E.: Oso gustura nago taldean. Jagoba [Mendizabal] nire begiralea izan da eta ezagutzen nuen ordutik, eta Rebeka ere hasieratik egon da adi-adi. Familia bat bezala sentitzen dut taldea, konfiantzazkoa.

Garrantzitsua da hori talde gisa aritzeko, ezta?

M.E.: Bai. Horrek erabateko lasaitasuna ematen dit. Badakit edozein momentutan edozer behar badut ondoan izango ditudala.

Zer da zuentzat Euskararen Maratoia?

P.A.: Bazter utzi ezin daitekeen Lasarte-Oriako hitzordu oso garrantzitsu bat; sekulako bolumena hartzen duena. Umeak, haien gurasoak, gazteak, helduak, adinekoak... Denak batzen gara herriko plazan, eta denok elkarrekin parte hartzen dugu. Herriak bat egiten du plazan. Hor sortzen den giroa ezin dut hitzez azaldu.

M.E.: Euskara ardatz hartuta herri guztia batzen duen festa handi bat, denak horren parte sentiarazten gaituena.

Hamar atzamarrak prest ditu Eizmendik Euskararen 10. Maratoialdiari ekiteko. TXINTXARRI

Irudikatzen duzue Euskararen Maratoirik gabeko Lasarte-Oria?

P.A.: Ez dut imajinatzen. Sekulako galera litzateke.

M.E.: Nik ere ez dut irudikatzen. Gure herriaren izaeraren parte dela uste dut.

Emakumeak eta umorea, belaunaldiz belaunaldi

Igande afalostean, ekitaldi berezia izango da Euskararen 10. Maratoian, Zapidunen aitortza. Ekimen horretako gauza asko aurreratu ezin diren arren, hona hemen pintzelkada batzuk. Lasarte-Oriako belaunaldi ezberdinetako emakumeak batuko dira Okendo plazan. Gure herrian dauden diziplina anitzeko artistek ere parte hartuko dute. Euskalgintza, herrigintza eta taula gainean umorez jardun izan diren herritarrak izango dira oholtzan. Orrialde hauetan ditugun Urrezko Neskak, Mailu Arruti eta Intza Alkain azken horien ordezkarietako batzuk dira

Urrezko Neskak, umorez betetako adiskidetasuna

Urrezko Neskak izena ezezaguna egiten ez bazaizu, ziur Inauterietan, Santa Ana parodian edo edozein saltsatan ikusi dituzula antzerkitxoren bat egiten. 1964. urtean ATC enpresako zein herriko neska talde batek saskibaloi taldea sortu zuten. Lau denboraldiz jokatu zuten elkarrekin, baina sortutako adiskidetasuna hain handia zen, non horietako batzuek geroztik ez duten harremana galdu. Ez da hasierako multzo bera, kide batzuk zendu dira eta fitxaketa berriak ere egin dituzte. Hala ere, astearte arratsaldero Santa Ana Karkaban duten txokoan biltzen dira eta astean zehar gertutakoak egunean jartzeaz gain, euren antzerkitxo, kale ikuskizunak edo mozorroak prestatzeko tartea ere hartzen dute bilera horietan. Egun hauetan aurtengo maratoiko ekitalditxoari eta mozorroei azken ukituak ematen ari dira eta eurekin bildu gara.

ATCko taldeak 25 urte bete zituenean beraientzat festa ederra antolatu zuten euren txokoan, antzerki eta guzti. "Almodovarrek *Todo sobre mi madre* egin zuen; guk *Todo sobre nosotras*", adierazi dute. Emanaldi hori Mari Karmen Sasiain jostunari egindako omenaldi batean errepikatu zuten Goiegi jatetxean, eta ordudanik ez dira geratu.

Urrezko neskak monja talde berezi izan ziren Maratoian lehenengoz oholtzara igo zirenean. TXINTXARRI

Euskararen Maratoian oholtzara igo ziren lehenengoz 2000. urtean, eta aldi bakoitzean izan dira era batera edo bestera parte hartzen. Moja, ezkontzako gonbidatu, barruko arropa sexiarekin desfilatu... Ez dute ezezkorik esaten. Horrez gain, taldeko bi kide – Manoli eta Miren Zumeta – zortzikoteko parte izan dira. Miren izan zen lehena 2000. urteko *Eguneroko plazerra* lelo zuen Maratoian; zortzi urte geroago, Manolik *Korritzeko modukoa* zen Maratoia egin zuen.

Oholtzara lotsarik gabe igotzen dira eta emanaldi bat prestatzeko denbora askorik behar ez dutela onartu dute: "Bost minututan pentsatzen dugu zer egin. Maratoirako bi edo hiru entsegu egiten ditugu; bestela, gauzak prestatu eta listo".

Ohikoa da euren antzerkiek ahotsik ez izatea. "Pena da, baina gutako askok ez dakite euskaraz oholtzan egiteko adina". Horregatik, lehen urte horietan Aitor Atxegarekin Maratoirako egindako grabaketak ekartzen dituzte gogora: "Zer-nolako barreak egin zituen hark gurekin".

Umorea ez dute falta behintzat. Milaka oroitzapen ekarri dituzte gogora eta guztia gozatzeko egiten dutela nabarmentzen dute: "Guk ondo pasatzeko egiten dugu; estutasunik sentitzeko ez gara kalera ateratzen".

Gainera, oholtza edo kalean baino, atzeko lanetan daudenean (euren txokoan guztia prestatzen ari direnean) gozatzen dutela onartu dute: "Ate hori ixten da eta zer egin, zer jantzi, zer esan...erabakitzen dugunean hau festa bat da. Guztia prestatzen ari garenean, hori bai dela momentu berezia. Gero kalean aterako da ateratzen dena. Baina hemengo une horiek apartekoak dira guretzat".

eskatu saskiak
eta eman hauspoa euskarari

errigora
errigora.eus

urriak 22 - azaroak 10
Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka
Bat egiteko garaia da

aek
Astolenelkartea
Sortzen

Euskararen mundutik, antzerkiaren oholtzara

Lasarte-Oriako euskalgintzan eta herrigintzan ibilbide zabaleko pertsona da Mailu Arruti. Landaberri ikastolako lehen belaunaldiko eta familia euskaltzale batekoa izanik, horretarako hautua egin zuen: "Nik nahi bezalako Euskal Herri bat eraikitzeko behar beharrezkoa iruditzen zitzaidan hizkuntza".

Era horretara, Lasarte-Oriako AEKn lanean ari zela, Euskararen Maratoiaren lehen pausoak bizitu zituen eta lehen zein bigarren aldietan (1986. eta 1988. urteetan) zortzikoteko kide izan zen. Proiektua aurkeztu ziotenean ez zuen ezezkorik esaterik izan: "Nola ez ba Maratoian?". Jaioberria zen Lasarte-Oriaren euskararen egoera argi zuten antolatzaileek eta horrelako erronka beharrezkoa ikusi zuten: "Orduan dena militantziaz egiten genuen. Oso kontziente ginen inguruetako herririk

Mailu Arruti, Maratoian zerbitzari paperean. TXINTXARRI

erdaldunduenean jaiotzea tokatu zitzaigula. Gazteak ginen, indartsuak, eta utopietan sinesten genuen".

Urtetan euskalgintzan lanean jardun ostean, "nekatuta", beste bide bat hartu zuen Arrutik. Alabaina, "munduak buelta asko ematen ditu eta konturatu gabe, Ttakun Euskara Elkartean kultura saileko ardura hartu nuen", azaldu digu. Horrela, 2012. urtean Euskararen 8. Maratoiko antolakuntzako parte izan zen: "Eraketa lanetan aritua nintzen lehen ere. Beraz, arazorik ez. Maratoi hura oso intentsoki bizitu nuen".

Oholtzan edo antolakuntza lanetan egongo litzatekeen galdetu eta argi du: "Aukeratzekotan... Orain bezala, ardura gutxi eta asko gozatu. Horrelako jairik ez dago niretzat".

Hala ere, ez da oholtzatik jaitsi. Azken Maratoietan, jaietan edo Manuel Lekuona Kultur Etxean egindako emanaldi ezberdinetan zerbitzari, langile, azafata, lamia edo bestelako paperetan ikusi dugu. Jauzi hori nola egin zuen galdetzean, hauxe erantzun du: "Inauteria, antzerkia, eta abar... asko gustatu zaizkit beti. Kukukan aukera bat ikusi nuen. Helduen taldea bazela, eta... aurrera egin nuen".

Bakarrizketetan aritu bada ere, Mirentxu Egizabal eta Ane Uitzirekin batera eskaini ohi ditu saioak: "Lehendik ezagutzen ginen baina antzerkiak aukera asko eman digu. Ane eta Mirentxu clown hutsak dira. Oso onak. Nik gehienetan aurpegi zuriarena egiten dut".

Eta egiten dituzten antzerkitxoen gidoiak bere esku daudela onartu du: "Idaztea ere gustuko dut eta gidoiak nire gain joaten dira. Oso lagun onak dira eta dena onartzen didate".

Guztietan umorea da nagusi. "Umoreak bide ematen du sarritan serio esanda gordinegia geratzen dena esateko", onartu du. Euskararen estandarizazioaren bidean tresna izan daitekeela ere uste du: "Euskararen normalizazioan lagundu dezake praktika hori ohiko bilakatzen den heinean, eginez alegia. Bertsolari emakumeekin gertatu den bezala. Plazan lekua hartuz".

Oholtza eta umorea, ogibide bezala

Intza Alkain herritarrak oholtza, ipuin kontalari lanak eta bestelakoak uztartzen ditu; Maratoialdian, esate baterako, Prestatu fasean Euskaraldirako beroketa tailerrak emango ditu Bea Egizabalekin batera. Harekin bildu gara bere oholtzako bizitzari errepaso bat egin eta urrian eta azaroan eskainiko dituen saio bereziei buruz mintzatzeko.

Txikitan 6 bat urterekin hasi zen Alkain antzerki munduan murgiltzen. Gogoan du egun hori. "Orduan Landaberri antzerki eskolan, orain Kukuka denean hasi nintzen. Kuadrillako lagun bat etorri zen eta izena eman zuela esan zidan. Nik ez nekien orduan zer zen antzerkia", adierazi digu.

Eta ikasturte amaierako erakustaldian, gustua hartu zion oholtzari: "Taula gainean lehenengoz egon eta gustura sentitzen nintzen". Geroztik ez da jaitsi.

Intza Alkain, IX. Maratoian aurkezle lanetan. TXINTXARRI

Buruan du antzerki lan horretan protagonista rola egiteko hautatu zutela, baina berak ezezkoa eman zuen bestelako paper bat egiteko: "Bazegoen pertsonaia bat umoretik landu behar zena eta nik hori egin nahi nuen". Beraz, txikitatik lotura estua izan du herritarrak umorearekin. "Etxean giro umoretsua beti egon da. Hori jaso eta horregatik agian jo dut hortik", onartu du.

Umorea tresna garrantzitsua dela ere nabarmendu du: "Askotan tapatzeko, salbatzeko edo mina ez sentitzeko erabiltzen da. Niri behintzat oholtzan eta, batez ere, bizitzan, asko lagundu didan maskara bat da. Ez da gustua edo erraztasuna izatea bakarrik; erabiltzen den tresna bat da. Eta nire kasuan, probetxua atera diot".

Egun antzerkigintzan buru-belarri dihardu lanean Alkainek. Edurne Azkaratekin eta Mikel Ibargurenekin batera Formol Laborategia sortu du. Prozesu luze eta gogor bat bezala definitzen du herritarrak, baina fruituak ematen hasi da. *Album* antzezlanak harrera ona izan du eta Euskal Aktoreen Batasunak Besarkada sarietako hautagai izendatu du herritarra, Antzerkia kategorian emakumezko aktore onenaren aitortza jasotzeko. Ez du zorterik izan, baina pozgarria izan da guztia: "Ez genuen espero, zeren lehenengo obra ikustera etorri behar baitira, gero bozkatu ahal izateko. Beraz, harrera ona izan du gure lanak. Eta bestetik, hautagaitza dago. Horrelako aitortzak eskertzekoak dira".

Maratoialdian ere protagonista izango da; Prestatu faseko saioetako gidarietako bat izango da Bea Egizabalekin batera. Ezin du askorik aurreratu, "sorpresa" izatea nahi dute. Euskaraldirako aholkuak emango dituztela bakarrik aipatu du. Gauza bat argi geratu zaigu, behintzat; bertan ere, umorea nagusi izango dela. "Bea eta biok, uste dut, ez dugula beste modurik. Serio ezingo genuke ezer egin", aitortu du.

Erriberako etxabeak eraistetik hurbilago

Udal korporazioak esku hartze horren proiektua eta kontratazio espedientea onartu ditu, hamalau aldeko bozka (PSE-EE, EH Bildu eta ELOP) eta hiru abstentziorekin (EAJ-PNV). Galdera eta erreguen tartea izan da urriko udalbatzarreko une mamitsuena

Txintxarri

Erribera kalean bizi diren bizilagunek urteak daramatzate honakoa eskatzen: egunero-egunero etxetik irten eta etxera sartzean zeharkatzen dituzten etxabeak eraitsi eta auzoa berrurbanizatzea. Hori zein egunetan errealitate bilakatuko den ez dakite oraindik, baina bai gero eta gutxiago falta dela, udal korporazioak obra horien proiektua eta kontratazio espedientea onartu dituelako urriko ohiko bilkuran. Adostu du Eduardo Lopez arkitektoak idatzitako egitasmoa onartzea; kontratazio espedientea onetsi eta adjudikazio prozesua irekitzea; 4.119.041,71 euro inbertitzea; lizitazioa iragartzea; eta kontratazio mahaia osatzea.

Horren guztiaren alde bozkatu izanagatik –PSE-EE eta EH Bildurekin batera; EAJ-PNV abstenitu egin da–, Elkarrekin Lasarte-Oria Podemosek kritika batzuk egin ditu. Bozeramaile David Ares: "Udal gobernuaren interes falta edo kudeatzeko ezintasunagatik, atzeratu egin da Erriberako obraren onarpena, eta horrek lanen garestitzea ekarri du; horrez gain, uste dugu bertako bizilagunek diru gehiegi jarri beharko dutela haien poltsikoetatik". Edonola ere,

Erribera kaleko etxabeetako batzuk. TXINTXARRI

Aresek onartu du proiektua "onuragarria" izango dela auzotar eta herritar guztientzat: "Irisgarritasuna eta argitasuna hobetzeaz gain, gure herriko bidegorri sarea zabalduko du".

Galdera eta erregu ugari

ELOPek, EAJ-PNVk eta EH Bilduk galdera eta erreguen txanda baliatu dute herriarekin zerikusia duten hainbat gai mahai gainean jartzeko. Lehenek berri eman dute Herri Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) argitaratutako txosten bati buruz, non erakunde horrek esaten duen "irregulartasun batzuk" egin dituen Lasarte-Oriako Udalak, hainbat gai kudeatzerako garaian. Jeltzaleek, aldiz, haserrea agertu dute Kultura batzordeak sustatutako ikastaroetan izena emateko orrietan hizkuntza (euskara, zehazki) gaitasunari buruzko galdera bat kendu duelako norbaitek, eta hori nork egin duen jakinaraztea eskatu dute.

Azkenik, EH Bilduk ordenantza fiskalen eta udal aurrekontuen onarpenari buruz galdetu dio udal gobernuari, eta baita herriko merkataritza sustatzeko aurtengo bonuen kanpainaren gainean ere. Agintean daudenen kudeaketa gaitzetsi du alderdiak.

Udalbatzarraren kronika osoa *www.txintxarri.eus* atari digitalean irakur dezakezue.

Aterpeako eta Gipuzkoa Minbiziaren Aurka elkarteko kideak, agerraldian. TXINTXARRI

Bularreko Minbiziaren Aurkako Egunarekin bat egin dute

Aterpea merkatarien elkarteak agerraldia egin du hilaren 19an, Bularreko Minbiziaren Aurkako Egunean

Txintxarri

Kolore arrosako zapiak soinean, anbulatorio aurrean batu dira Aterpea merkatarien elkarteko kideak. Ramon Ormazabalek hitz egin du elkarteko bazkideen izenean, eta eskerrak emanez hasi du hitzartzea. Gipuzkoa Minbiziaren Aurka elkarteko kudeatzaile Katty Nevadori zuzendu zaio lehenik; minbiziaren aurka egiten duten lana erakutsi eta gizarteratzeko Aterpearekin kontatu izana eskertu dio. Bestalde, gizarteari eta erakundeei zuzendu zaie: "Eskerrik asko minbiziaren ikerketa babesteagatik, eta jarrai dezazuela horretan".

Aurtengo kanpainaren leloari, *Arrosa kolore bat baino gehiago da*, egin dio erreferentzia gero. Nabarmendu du kolore bat izateaz gain, ikerketa, biziraupena eta gaixoek behar duten babes eta laguntza ere badela.

Gipuzkoa Minbiziaren Aurka elkarteko kudeatzaile Nevadok hitz egin du ostean, eta honek ere eskertza egiteko baliatu du aukera; "Mila esker Aterpea, hemen egoteko aukera emateagatik".

Ormazabalek bezala, leloa izan du hizpide. Azpimarratu du, bularreko minbiziaren prebentzioan, arretan eta tratamenduetan aurrerapausoak eman diren arren, oraindik "egiteko asko" dagoela, eta berak kudeatzen duen elkarteak lan horietan jarraituko duela berretsi du.

Bestalde, Ferraren bila kanpainak ere aurrera jarraitzen du; abenduaren 6ra bitarte egongo da martxan. Erakusleihoetan urrezko ferrak aurkitu beharko dituzte kanpainarekin bat egingo duten herritarrek; horiei argazkia atera eta sare sozialetan partekatu sarien zozketan parte hartzeko. 2.000 euro banatuko ditu elkarteak erosketa txarteletan. Informazio gehiago nahi duenak *www.txintxarri.eus* atarian aurki dezake.

Maider Galardi F. Agirre saritu du Euskal Kazetarien Elkarteak

Lasarteoriatarrak pozarren jaso du aitortza; sari banaketa ekitaldia azaroaren 8an egingo dute, Bilbon

Txintxarri

Maider Galardi F. Agirre kazetari eta ikerlariak lau sasoi daramatza *Berria FM* podcast feminista gidatzen, askotariko gaiak ikuspuntu horretatik lantzen, hilabetean behin. Euskal Kazetarien Elkarteak sari bat eman dio horregatik, Kazetaritza Digitala-Narratiba Berriak kategoriakoa, hain justu.

2020ko irailean elkarrizketatu zuen TXINTXARRI-k Galardi, egitasmo komunikatibo horren gainean gehiago jakiteko. Esteka honetan irakur dezakezue: *https://txintxarri.eus/lasarteoria/1601017373288-maider-galardi-f-agirre-edozein-gai-feminismotik-lantzea-da-erronka-nagusia*. Hilaren 15ean *Berria* egunkariak elkarrizketatu zuen herritarra: adierazi zuen "pozik" jaso zuela aitortza. Esteka honetan ikusi eta entzun dezakezue: *https://www.berria.eus/albisteak/219443/berria-fm-saritu-du-euskal-kazetarien-elkarteak.htm*.

Lau denboraldi daramatza herritarrak 'Berria FM' gidatzen. MAIDER GALARDI

Lasarte-Oriako GKS taldea aurkeztu dute

Gazte Koordinadora Sozialistak eragile bat izango du Buruntzaldean, Lasarte-Oriakoa. Gaztelekuan egin dute aurkezpen agerraldia berriki: gaur egungo testuingurua aztertzeaz gain, bost auzi nagusi jarri dituzte mahai gainean. Hogei bat lagun bertaratu dira

Txintxarri

Gazte Koordinadora Sozialistak (GKS) taldea izango du Lasarte-Orian. Gaztelekuan egin zuten aurkezpen ekitaldia kideek, hilaren 15ean. Egungo testuinguruaren irakurketa egin, eta horri aurre egiteko bost proposamen orokor azaldu zituzten. Hogei bat gazte bertaratu ziren agerraldira, eragilearen asmoen berri izateko.

Egoerak berebiziko garrantzia du nola jokatu jakiteko, eta egungoa "etengabeko gainbeheran dagoen" kapitalismoaren krisiak ezaugarritzen du. Aurretik badator ere, COVID-19ak areagotu egin du bai joera hori bai proletarizazio prozesua ere, "klase ertainaren desagerpenarekin eta polarizazioarekin". Gazteengan izan duen eragina nabarmena izan da, gazte langileen baldintza ekonomikoak okertuz: langabezia, aldizkako lanak edota langabezia kronikoa. "Proletarizazioak pobre izatera kondenatzen gaitu", "gazte baten soldatarekin ezinezkoa da bizi proiektu duin bat abiatzea", nabarmendu zuten kideek, eta ildo bereko beste zailtasun batzuk gehitu: etxea erostekoa, alokairua ordaintzekoa, zerbitzuetarako sarbidearena...

GKSko bi kide, Gaztelekuko aurkezpen agerraldian azalpenak ematen. TXINTXARRI

Halaber, egoera horretan izan den autoritarismoaren igoera eta gazteen kriminalizazioa salatu zituzten, baita masa komunikabideek errepresioa justifikatu izana ere.

"Errotiko aldaketa bat"

Testuinguruak "errotiko aldaketa bat" eskatzen du eta gazteriak "zapaldutako" sektorea izateari uzteko "ezinbestekotzat" jotzen dute estatu sozialistaren eraikitzea. Sozialismoak zapalkuntza guztiak "ezerezten" dituen heinean, irtenbide bakarra dela deritzote.

Gazteek pairatzen dituzten gatazka nagusiak klase gatazkaren barruan kokatzen dituztenez, sozialismoaren alde lerratu eta haren eraikuntzarekin konpromisoa hartzen du GKSk. Euren jardunaren helburu nagusia estatu sozialistaren eraikitzea da. "Langileria boterea eskuratzera hauspotzea da, burgesiaren boterea suntsituz, eta batez ere, sozialismoaren eraketari bide eman".

Bost auzi nagusi

- **Gazte lan merkatua.** Baldintza berdinak denentzat eta gazteen prekarizazioa amaitu.
- **Bizi ereduaren pobretzea.** Oinarrizko bizi bitartekoak bermatu, norberaren garapen askerako baldintzak sortu eta ingurugiroaren suntsipena borrokatu.
- **Gazteei bideratutako kultur industria.** Indarkeria matxista borrokatu, eta pobreziaren normalizazioari zein despolitizazioari aurre egin.
- **Hezkuntza sistema.** Enpresarien interesetara dagoen hezkuntza ereduarekin amaitu eta hezkuntza edukiz husteari ezetz esan, autoritarismoa borrokatu.
- **Autoritarismoa eta eskubide kolektiboak.** Gazte langileon aurkako kriminalizazioarekin nahiz jazarpenarekin amaitu eta eskubide politikoak borrokatu.

Aipatutakoen gaineko xehetasunak GKSren webgunean irakur daitezke: *https://www.gks.eus/_files/ugd/8171b5_4894fb604d3440a28fcec1ec344f4a7b.pdf*.

NEURE KABUZ

ASIER ODRIOZOLA

Maratoia

Maratoiaz ez eta zertaz idatz nezakeen oraingoan? Berriki gure herriaz aritu naiz eztabaidan Gipuzkoako beste herri bateko lagun batekin (ez da garrantzitsua nongoa den aipatzea) eta beste behin ere irudi txarraren zantzuak somatu nizkion. Batek daki zergaitik baina Lasarte-Oriak badu herri kaxkarraren mamua, ia beti ezagutzen ez dutenen ahotan. Badut beste lagun bat halakoetan gauza bera dioena: esan dezatela Europa osoan zaldiak, karreratako autoak, munduko txirrindularitza froga, nazioarteko atletismo lasterketa edo eta golf zelaia dituena edo izan dituena, aerodromoa ez aipatzearren.

Zerrenda luze horri Euskararen Maratoia erantsiko nioke nik. Euskal Herria ez da oso handia baina udalerri askoz dago osatua eta beste inon ez dute antzeko ekimenik martxan jartzeko adorerik izan. Eta ez Lasarte-Oriak erronka hori zabaldu ez zuelako, baizik eta lekukoa ez duelako inork hartu. Orain hain guztionak diren Belarriprest eta Ahobizi figurak ere gurean sortuak dira eta ez da kasualitatea, bai baitago horretarako ekosistema. Asteburu honetakoa hamargarren aldia du Maratoiak eta horrek garbi erakusten du ez duela atzera bueltarik. Aurten gainera inoiz baino gogotsuago egingo zaio harrera Maratoiari, pandemiagatik "lau urtetik behinekotasuna" pikutara joan zelako eta Euskaraldiarekin harreman estuan ospatuko delako. Azken bi ohar: ez da dena argia, euskarak halako ekitaldien beharra izatea ez baita seinale ona eta bestalde, gozatu nire partez, bidaia bat tarteko, hamaikagarrenaren zai naukazuelako. Sentitu, prestatu eta batez ere, ekin!!!

TXINTXARRI

Eraldatzearen aztarna

XVIII. Dantza Zirkuituaren barruan, Nerea Martinez dantzariak sortu eta interpretatutako *Abrazo* lanaren emanaldia ikusteko aukera izan zuten Manuel Lekuona Kultur Etxera joandakoek hilaren 14an. Jende gutxiren arreta piztu bazuen ere, ikuskizun dotorea eta intimoa izan da, estatua itxurako bi pertsonaiek aurrera eramandakoa. Besarkadaren zirrara eta zizelkatzearen ideia gorpuztu dituzte, eraldatzeak eta igarotzeak uzten duten aztarna iradokiz.

Zuhaitzez zuhaitz, Iratitik Amazoniara

'Ez gara jaitsiko' izena du Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek zenbait sortzaile eta eragilerekin elkarlanean ondu duten egitasmo berriak, disko liburu formatuan. Alboan gobernuz kanpoko erakundearen Amazonia Gara kanpaina du oinarri eta abiapuntu

Txintxarri

Zuhaitzek zapore, kolore eta forma askotako fruituak ematen dituzte urte osoan zehar, baita udazkenean ere. Aurtengo uztako berezienetako bat *Ez gara jaitsiko* izan da, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen disko liburu berria. Hilabete askotan zehar landu eta ureztatu ostean, berriki loratu da. Pailazoek ez dute bakarrik jorratu, hainbat sortzaile eta eragilerekin batera baizik: Leire Bilbaok idatzi du ipuina, Irrimarra-ko kide Irene Irureta nahiz Karmele Gorroñok ilustratu dute eta Xabier Zabalak jarri dio doinua kontakizunari. Donostiako Cristina Enea parkean aurkeztu dute lana partaideek.

Donostian aurkeztu dute 'Ez gara jaitsiko' disko liburua. KATXIPORRETA

Aipatu proiektuak Alboan gobernuz kanpoko erakundearen Amazonia Gara kanpaina du oinarri eta abiapuntu. Hala, Iratiko basotik Amazoniara arteko bidaia egingo dute hiru pailazoek, zuhaitzez zuhaitz eta adarrez adar. "Amazonia da munduaren birika, eta Euskal Herrikoa, Irati. Bertan ere badago euskara, Pirinioetako mendialde horretan desagertu egin zen eta berreskuratzen ari dira orain".

Klima larrialdiaren aurka

Esan bezala, *Ez gara jaitsiko*-ren abiapuntua Alboan eragilearen Amazonia Gara egitasmoa izan da. GKE horretako kide Lide Narbarteren hitzetan, "beharrezko" ikusi zuten haur txikienengana hurbiltzea, "ikusteko Amazonia garela modu askotan". Horregatik, pailazoengana jotzea erabaki zuten. "Gure ikuspegia bizitza erdian jartzea da, gu *amazonizatzea* edo *iratizatzea*, guk ere badugulako hemen gure birika. Mezu hori modu oso ederrean ematea lortu dute Katxiporretakoek". Narbartek azaldu duenez, Alboanen kanpainak "klima larrialdiaren aurka eta Amazoniako herriaren alde" mugiarazi nahi ditu euskal herritarrak. Horren barruan, hango eta hemengo emakumeen arteko elkarrizketak bultatzen ari dira.

Elkarrizketa bat baino gehiago izan dute baita ere Irrimarrako kide Irene Irureta eta Karmele Gorroñok, pailazoekin, lanaren kontestua azaltzeko. Hala, Amazoniako animalia, zuhaitz eta landareen bila hasi ziren. Azpimarratu nahi izan dute mundu osoa konektatuta dagoela zuhaitz eta ibaien bidez. Ipuina idatzi duen Leire Bilbaok, berriz, adierazi du elkarlanean aritzean "gusturago" jarduten dela, nahiz eta onartu "zaila" dela "hitz gutxirekin ahalik eta gehien transmititzea". 4.000 karakteretara egokitu behar izan du kontakizuna. Horri guztiari Xabier Zabala musikariak jarri dio doinua. Amazoniako musikan oinarritu da, gitarra, perkusioa eta flautak erabilita. "Umeen musikaz aritzen gara garrantziarik ez balu bezala eta ez da hala, oso inportantea da".

Ez gara jaitsiko lana 2023-2024 ikasturtean bilakatuko dute ikuskizun pailazoek.

TXINTXARRI

Lehen gonbidatua, Joseba Sarrionandia

Lasarte-Oriako Irakurle Txokoko lagunek ikasturte berriari ekin diote. Joseba Sarrionandia idazle bizkaitarra izan da lehen gonbidatua: 'Bizitza ez al da oso arriskutsua?' saiakerari buruz mintzatu dira Antonio Mercero guneko hitzaldi aretoan. Azken kurtsoetan bezala, Uxue Alberdi idazle eta bertsolariak dinamizatu du saioa. Dinamika ere ez dute aldatu: hilean behin elkartuko dira taldeko kideak, aurrez adostutako lanei buruz solasteko. Azaroko eta abenduko saioak lotuta dituzte: datorren hilabetean Eider Rodriguez egilea etorriko da, 'Eraikuntzarako materiala' eleberriari buruz hitz egitera, eta urtea amaitzeko, Daniele Sarriugartek berriki euskaratu duen Luisa Carnes idazlearen 'Hamahiru ipuin' jorratuko dute.

Bihar, hilaren 22an hasiko den Euskararen 10. Maratoialdiko Sentitu fasean ere parte hartuko du irakurle txokoak. 09:05etik aurrera, gosari literarioa egingo dute hainbat gonbidatu berezirekin: Harkaitz Cano, Idoia Garzes, Iñaki Petxarroman, Martin Anso, Ane Labaka, Joseba Tapia eta Pablo Barrio. Bea Egizabal, Intza Alkain eta Ixiar Rozasek ere parte hartuko dute, bideoz. Aintzane Usandizaga herritarrak dinamizatuko du jarduera.

Udal Liburutegiak jarduera ugari antolatu ditu udazkenerako

Irakurzaletasuna sustatzeko asmoz, 3 eta 18 urte arteko herritarrentzako ekimenak prestatu ditu, abendura arte

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udal Liburutegiak jarduera ugari aurrera eramango ditu datozen hilabeteetan, hilaren 26tik hasi eta abenduaren 14ra arte. Antolatzaileek jakinarazi dute Manuel Lekuona Kultur Etxeko hirugarren solairuan egingo dituztela ekitaldi guztiak, euskaraz, eta parte hartu nahi dutenek ez dutela aurrez izena eman beharrik izango.

Iazko kurtsoko saio bat. TXINTXARRI

Kontu Kantoiko lagunek irekiko dute egitaraua datorren asteko asteazkenean, hilak 26. 3-5 urte arteko haurren irudimena dantzan jarriko dute ipuinen bidez, 17:30etik aurrera. Beste saio bat egingo dute abenduaren 14an, toki eta ordu berean. Alaine Agirre idazle bizkaitarrak aurkezpen solasaldi bat emango du hitzaldi aretoan hilaren 27an, 14 eta 18 urte arteko gazteei zuzenduta, adin horretako irakurle talde bat sortzeko helburuz. 19:00etan hasiko da.

Azaroaren 14tik 18ra Hizki Hazka areto literarioa izango dute. Intza Alkain herritarraren laguntzaz, Landaberriko LH 1 eta 2 mailetako haurrek alfabetoa landuko dute. 29an, berriz, 6 eta 8 urte artekoek genero berdintasuna jorratuko dute Mari Garcia Laderorekin, 17:30ean.

"Plazeretik hurbildu behar dugu literaturara"

ALAINE AGIRRE IDAZLEA ETA IRAKURLE TALDEEN DINAMIZATZAILEA

Irakurle talde bat osatzeko asmoz, Agirrek olasaldi bat emango du Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoan, hilaren 27an, 18:30ean; 14-18 urte arteko gazteei zuzenduko zaie

Iñigo Gonzalez Sarobe

Udal Liburutegiak makina bat jarduera antolatu ditu udazken honetarako, horien artean, Alaine Agirrek (Bermeo, Bizkaia, 1990) datorren asteko ostegunean emango duen solasaldia, hilak 27, kultur etxeko hitzaldi aretoan, 18:30ean. Idazle bizkaitarrak ekimenaren nondik norakoak azaldu dizkio TXINTXARRI-ri.

Zeri buruz hitz egingo duzu hilaren 27an Udal Liburutegian?

Ikasturte hasieran, Lasarte-Oriako Udalari proposatu nion irakurle talde bat sortzea Lasarte-Orian, 14 eta 18 urte bitartekoentzat. Gustatu zitzaion ideia udalari, eta hortxe gabiltza... Saiatuko gara jendea erakartzen, nahiz eta jakin irakurtzeko zaletasuna minoritarioa dela gaur egun. Gainera, gutxitua eta zapaldua dagoen hizkuntza baten markoaren barruan ari gara. Proposamena gazteei zuzendutakoa izanik, baliteke haiengana iristea zailagoa izatea, kontuan izanda ikus-entzunezko adierazpenek indar gehiago-edo izan dezaketela liburuek baino. Hori guztia esanda, ilusioz eta elkarlanean egingo dugu saiakera.

Nola erakarri 14 eta 18 urte arteko herritarrak egitasmora?

Gure asmoa da gazteek ikustea bidea ez dela derrigortasuna edo exijentzia. Plazeretik hurbildu behar dugu literaturara, horretan sinesten dut. Zaletasuna ezingo da inoiz piztu obligaziotik, antitetikoak dira bi kontzeptuak, kontrakoak. Hasieran oso garrantzitsua da norberaren gustuen arabera irakurtzea, literaturarekiko elektrizitate edo magia hori sortu arte. Gero, zenbat eta gehiago irakurri, orduan eta errazagoa izango zaio irakurleari kontzeptuak barneratzea, ideiak elkarrekin lotzea, hausnartzea, literaturaren barne arau inplizituak ulertzea, eta abar.

Hori guztia ez dut nik soilik esaten, literaturaren eta irakurzaletasunaren gainean ikertzen duten adituek ere hala ikusten dute. Ni neu, adibidez, horri buruz ikasten nabil: Magisteritza egiten ari naiz, azken urtea dut aurtengoa eta Euskara eta Literatura ikasgaia hautatu dut. Jorratzen ari gara, besteak beste, haurraren eta literaturaren arteko zubi izateko moduak.

"Gazteek ez dute irakurtzen". Bat egiten duzu esaldi horrekin?

Badago epai moduko bat horri buruz, gazteek ez dutela irakurtzen. Esaldi hori esaten da, baina 'Helduek ez dute irakurtzen' ez dugu aipatzen, eta hori ez da bestea baino gezurragoa. Oro har gero eta gutxiago irakurtzen dugu. Uste dugu goitik beherako norabide horretan gazteei esan diezaiekegula zer egin dezaketen eta zer ez. Gaia edozein izanda ere, nik ez dut horretan sinesten, zer esanik ez literaturan.

Pasioz hitz egiten du Agirrek literatura eta irakurzaletasunari buruz. ALAINE AGIRRE

Nekez transmitituko diegu irakurtzeko pasioa belaunaldi berriei guraso, irakasle eta oro har gizarteak ez badu sentitzen. Lehen esan dudan moduan, zaletasuna inoiz ezingo dugu piztu derrigortasunetik edo exijentziatik.

Irakurle gazteen taldeak dinamizatzen dituzu beste herri batzuetan?

Zortzi edo bederatzi bat urte daramatzat ikastetxetara joaten, Euskal Idazleen Elkartearen eskutik. Konturatu naiz izugarri gustatzen zaidala gazteekin aritzea, literaturarekiko sentitzen dudan pasioa niregandik atera eta beste pertsona batzuengana bideratzea. Hasieran Lehen Hezkuntzako ikasleekin aritu nintzen batez ere, eta geroago eman nuen jauzia Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara. Nerabe horiengana iristeko beste kode eta bide batzuk daude, baina hori ere atsegin dut. Ormaiztegin aritu nintzen iaz eta izugarria izan zen kideak horrelako gose eta gogoz ikustea.

"BIDEA ELKARREKIN EGITEA DA ASMOA, TALDEKIDEEN BEHARRETARA EGOKITUTA"

Lasarte-Orian egitasmoa martxan jarriz gero, zer landuko zenukete?

Gazte literaturan argitaratuta dauzkadan lau liburuak [*Maren, Libe, Oier* eta *Ane*] lantzen hasiko ginateke, betiere haiek nahi badute. Datorren asteko aurkezpen solasaldian haiei buruz hitz egingo dut, eta adin tarte horrentzat idazteari buruz zein taldeak dinamizatzearen gainean dudan ikuspuntuaz ere bai.

Proiektua martxan jarriko bagenu, dinamizazio lana egingo nuke baina bidea ez nuke nik markatuko: kideei galdetuko nieke zer lan landu nahiko luketen, zer interesaten zaien, zein autorerekiko duten jakin-mina... Hasieran, gakoa partaideak tanteatzea da, haien zaletasun eta kezkak ezagutzea, eta nire lau liburu horiekin hasteak denbora eman ohi dit horretarako. Noski, bidea elkarrekin egitea da asmoa, taldekideen beharretara egokituta.

Irakurketa bakarka egin ohi dugun ariketa da. Zer ematen dio irakurleari liburu bat amaitu ostean duen iritzia talderatzeak?

Liburu bat irakurri eta gainerako partaideekin elkartzera zoazenean, bakarka egin duzun interpretazio eta bizipenak daramatzazu patrikan. Saioaren ostean, etxera bueltan are beteago eramaten duzu sakela, zure irakurketa ondokoekin partekatu duzulako. Esperientzia oso ederra da, ez bakarrik literarioki, baita ere pertsonalki: gizarte honetan ez dugu aukera askorik azaletik hondoranzko bidaia egiteko, ur sakon horietan sartzeko. Horrelako ekimenek aukera aparta ematen digute horretarako, eta are gehiago, familia edo kuadrillak bezalako sistema txiki horietan dugun roletatik atera eta askeago, libreago hitz egiteko. Zaletasun hori elikatzean motibazioa areagotu egiten da eta bihurtzen da autozaintzarako mekanismo: talde bateko kide batek esan zidan irakurtzen jartzen zen une hori berea zela. Irakurketa momentuei buruzko gogoetak ere interesatzen zaizkit, taldeetan hasi gara horiei buruz hizketan.

Irakurri elkarrizketa osoa *www.txintxarri.eus* atarian

Hodei Murgiondo, Euskadiko onenen artean

Olatuen gainean lehiatzen da Hodei Murgiondo herritarra. Maiatzetik urrira, Euskadiko eta Bizkaiko surf zirkuituan 12 eta 14 urtez azpiko txapelketa ezberdinetan parte hartu du gazteak eta lehen postuetan izan da. Euskadiko 12 urtez azpiko txapeldun da

Txintxarri

Lasarte-Orian hondartzarik egon ez arren, surf zaletu ugari dago gure herrian. Batzuk txapelketa ezberdinetan ere lehiatzen dira eta garaikurrak pilatzen dituzte. Hori da Hodei Murgiondo gaztearen kasua.

Zarauzko Moor Eskolan Iulen Elkoro prestatzailearekin lanean ari da herritarra eta fruitu ugari eman ditu aurtengo denboraldiak. Murgiondo apirilean hasi zen lehian eta ederki jardun da Euskadiko zein Bizkaiko zirkuituetan.

Euskal Surf Txapela Txiki proba izan zuen lasarteoriatarrak urteko lehena. Bertan 12 urtez azpiko lehen postua eskuratu eta Euskadiko txapela jantzi zuen.

Euskadiko Surf Gazte Zirkuituan, berriz, 14 urtez azpiko mailan aritu da Murgiondo. Bi probari egin behar izan die aurre surflari gazteak. Ekainean La Arena hondartzan, Zierbenan finalerdietara iritsi zen . Hilaren 1ean eta 2an, berriz, Karraspio hondartzan, Lekeition finalean izan zen eta laugarren amaitu zuen proba.

Hodei Murgiondo, podiumeko maila gorenean. EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA

Lehiaketen puntuazioa batuta – La Arena, 555 puntu eta Karraspio, 670 puntu – sailkapen orokorrean hirugarren (1.225 puntu) izan da Moor eskolako kidea.

Lehen postua, Mundakan

Bizkaiko Ikastxiki zirkuituan, berriz, bere mailan (12 urtez azpiko maila) bigarren amaitu du Murgiondok.

Maiatzean La Arenan eta Arrietara hondartzan, Sopelan jokatu ziren saioak eta bietan lehen postuetan izan zen lasarteoriatarra; Zierbenan laugarren sailkatu zen eta Sopelan, aldiz, garaipena erdietsi zuen.

Zirkuitu horretan eskuratutako postuari esker, hilaren 9an Mundakan lehiatu zuen amaierako proba herritar gazteak eta lehen postua eskuratu zuen.

Gipuzkoako zein Espainiako txapelketetan ere izan da Murgiondo. Donostiako Zurriola hondartzan uztailaren 2an eta 3an antolatu zen Gipuzkoako lehiaketa. Herritarrak 14 urtez azpiko mailako lehiari egin zion aurre eta hirugarren amaitu zuen.

Abuztuan, berriz, Galiziako Valdoviño herrira bidaiatu zuen herriko surflariak Espainiako txapelketan parte hartzera. Kids mailan 12 urtez azpiko multzoan borrokatu zen Murgiondo eta final laurdenetan kaleratua izan zen.

Kantabriako proba batzuetako partaide ere izan da herritarra. Azkena hilaren 12an jokatu du, Loredoko I. Surf txapelketa. Finalerdietara iritsi da.

Kostatako garaipena lortu du Texas Lasartearraren jubenilak

Iker Morenok zuzentzen duen taldeak itzulia eman dio Ikasberriren aurkako partidari eta 3-2 gailendu da

Txintxarri

Liga porrot batekin hasi bazuen ere, Texas Lasartearra elkarteko jubenil taldeak jokatu dituen gainerako bi jardunaldietan garaipena erdietsi du. Hilaren 15ean, Ikasberri Aren aurka neurtu zituen indarrak talde zuri-urdinak Michelin kirol guneko zelaian eta 3-2 irabazi zuen.

Iker Morenoren jokalariak indartsu hasi ziren jokatzen. Erasoan aukerak sortzen zituzten eta defentsan ere ederki moldatzen ziren. Ondorioz, 10. minutuan aurrea hartu zuten.

Golaren ostean, Texaseko jubenilek jokoa lasaitu zuten eta aurkaria etxeko taldearen ate aurrera iritsi zen behin baino gehiagotan arriskua sortuz.

Horietako batean, alboko sake bati esker, azpeitiarrek baloia arean sartu zuten; etxeko taldeko zentralak baloia lapurtu nahian, penaltia egin zuen eta berdinketako gola igo zen markagailura.

Horrek zuri-urdinak esnatzea ekarri zuen eta erasoz eraso, aurkaria bere zelaian sartzera behartu zuten. Texaseko jokalariak bigarren golaren bila ari zirela, azken paseak ez zuen bere helburura iristerik izan; lehen zatia amaitutzat eman zuen epaileak.

Atsedenaldian, taldearen eraso jokoa hobetu nahian, etxeko taldeko prestatzaile Morenok bi aldaketa egin zituen eta ederki hasi zuten zuri-urdinek bigarren zatia; alabaina, baloia atean sartu ezinik egon ziren denbora tarte luzean. Ikasberrik, berriz, kontraeraso batean falta bidez 1 eta 2koa egin zuen.

Texaseko jokalaria, Ikasberrikoaren aurrean baloiarekin ihesi. TXINTXARRI

Guztia aurka zuela eta neurketari itzulia eman nahian, Texaseko entrenatzaileak geratzen zitzaizkion aldaketak egin zituen.

Horri esker, 10 minututan egoera guztiz bestelakoa zen. Hegaleko bi jokaldi baliatuz, etxeko jokalariek bi gol egitea lortu zuten.

Eta lehen zatian gertatu modura, erasoan amaitu zuten Texas Lasartearrako jubenilek norgehiagoka.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Touring KE - Ostadar SKT
Larunbata. 18:00. Fanderia, Errenterian.

GORENGOEN MAILA

Touring KE B - Ostadar SKT
Larunbata. 15:45. Fanderia, Errenterian.

ERREGIONAL 1. MAILA

Ostadar SKT - Intxurre KKE
Larunbata. 14:40. Michelin kirol gunean.
Urola KE B - Texas Lasartearra CF
Larunbata. 16:00. Argixao, Zumarragan.

OHOREZKO JUBENIL MAILA

Ostadar SKT - Hondarribia FE
Igandea. 15:10. Michelin kirol gunean.

JUBENIL 1. MAILA

Texas Lasartearra CF - Usurbil FT A
Larunbata. 18:10. Michelin kirol gunean.
Kostkas KE C - Ostadar SKT B
Larunbata. 17:30. Matigoxotegi, Donostian.
Ostadar SKT C - Billabona KE B
Igandea. 13:25. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO KADETE MAILA

Ostadar SKT - Oiartzun KE
Igandea. 11:30. Michelin kirol gunean.

KADETE 1. MAILA

Ostadar SKT C - Santo Tomas Lizeoa B
Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.
Texas Lasartearra CF - Ostadar SKT B
Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.

ARETO-FUTBOLA

1. MAILA

Eguzki Arkupe Rehab. - Herrikide
Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

2. MAILA

Lauburu KE Ibarra - Eguzki ISU Leihoak
Ostirala. 20:45 Belabieta kirol., Ibarran.

JUBENIL MAILA

Eguzki Bodegas Ayesa - Zarautz KE
Larunbata. 11:15. Maialen Chourraut kirol.

INFANTIL MAILA

Eguzki AF - Ingou Aloña Mendi KE B
Larunbata. 12:30. Maialen Chourraut kirol.

SASKIBALOIA

SENIOR 1. MAILA

Ostadar SKT - Arri BKL
Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

SENIOR 3. MAILA

Ostadar SKT - TAKE Coach
Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.

JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA

Ostadar SKT - Mondragon Unibertsitatea
Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.

KADETE ERRENDIMENDU ZILARRA

Saski Axular - Ostadar SKT
Igandea. 10:00. Benta Berri kirol., Donostian.

PILOTA

ESKUZ BINAKA, JUBENIL 1. MAILA

Ilunpe 1 - Intza
Igandea. 11:00. Frontoi txiki, Azpeitian.

ESKUZ BINAKA, JUBENIL 2. MAILA

Intza - Hernani 1
Larunbata. 16:15. (3.partida) Michelin kirol.

ESKUZ BANAKA, ALEBIN 1. MAILA

Intza (Huizi) - Lapke
Larunbata. 16:15. (1.partida) Michelin kirol.
Intza (Jauregi) - Ziotza
Larunbata. 16:15. (2.partida) Michelin kirol.

ESKUZ BANAKA, ALEBIN 2. MAILA

Hernani - Intza (Maiz)
Larunbata. 16:00. Udaleko pil., Hernanin.
Intxurre - Intza (Iparragirre)
Ostirala. 18:15. Elorri, Alegian.

BOLE|BOLA

EUSKAL LIGA, SENIOR

Ostadar SKT - Bera Bera Bultz
Igandea. 11:00. Maialen Chourraut kirol.

EUSKAL LIGA, SENIOR 2. MAILA

Bera Bera Igartza - Ostadar SKT
Larunbata. 17:00. Pio Baroja kirol., Donostian.

JUBENILA

Ostadar SKT - Lizardi
Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

KADETEA

Hernani KE 3 - Ostadar SKT B
Larunbata. 10:00. Hernaniko kiroldegian.
Lizardi - Ostadar SKT 1
Larunbata. 12:30. Lizardi BHI, Zarautzen.

ERRUGBIA

16 ETA 18 URTEZ AZPIKOA

Iruña RC UNAV - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak KE
Larunbata. 10:00 eta 12:15. UNAV kirol., Iruñean.

IGERIKETA

NEGUKO LIGA

Buruntzaldea IKTko infantil, junior eta absolutuek Neguko Ligako 1. jardunaldiarekin denboraldiari hasiera emango diote.
Larunbata. 16:00. Usabal kir., Tolosan.

AUTOMOBILISMOA

URRAKIRA IGOERA

Herriko gidariak Urrakira igoera proban lehiatuko dira.
Igandea. 10:00. Azpeitian.

LASARTE-ORIA
GREMIOEN GIDA

Arreta profesionalena, herrian bertan!

Elektrizitatea

ELECTRICIDAD EZA ARREGUI

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21
600 85 75 86 www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com

Iturgintza

ILLARRETA
ITURGINTZA IGELTSERITZA

- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSERITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ETXEBIZITZEN ETA LOKALEN BERRIKUNTZA OSOA

BULEGOA: Geltoki kalea 14, Lasarte-Oria
Tel. 606 68 66 15 eta 943-36 17 52.
TAILERRA: Oialume bidea 24, Astigarraga
info@illarreta.com

Kristaldegi eta leihoak

AÑORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA

- *Komertzial instalazioak*
- *Beira bikoitza*
- *Segurtasun beirak*
- *Dutxa-itxiturak eta irristailuak*
- *Ispiluak*
- *Barandak*
- *Kristal mota guztiak...*

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943-37 17 33 • 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com

30. urteurrena
ISU
PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK
Pertsianak, motorizazioak, barandak, toldoak,armairuak, eltxo sareak eta gehiago...
943-36 64 95
ventanas_isu@hotmail.com
Kale Nagusia, 46 behea.
LASARTE-ORIA
Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala
USURBIL

Barne-Diseinua

SUGATE
SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
- AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5
Lasarte-Oria
Tel: 943-361 471
www.sugatecocinas.com

Igeltseritza

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra

- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 05 93 92 - 943-56 66 40
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Bulegoa: Geltoki kalea 15, Lasarte-Oria

Gida honetan azaldu nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan

TXINTXARRI aldizkarian zure publizitatea agertzeko, jar zaitez gurekin harremanetan:
943-37 14 48 (106) / 646 82 44 66 | *publizitatea@ttakun.eus*

AVK Bera Beraren defentsa igaro ezinik

Euskal Ligako Ohorezko B Mailan, Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT eta AVK Bera Bera taldeen arteko lehia izan da. Nahiz eta beltzek erasoan baloia ongi mugitu, defentsa lan ederra egin dute donostiarrek eta 7-14 irabazi dute neurketa

Txintxarri

Errugbiaz gozatzeko aukera izango da denboraldi honetan ere Michelin kirol gunean. Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RTren eskutik, Euskal Ligako Ohorezko B Mailako neurketak izango dira Lasarte-Orian jokatuko direnak. Lehena hilaren 16an izan zen eta zaletuek partida ederra ikusi zuten AVK Bera Beraren aurka.

Epaileak hasiera adierazi orduko, Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT erasoan jokatu zen. Era horretara, donostiarrek atzera egin eta 22 metroko lerroan defendatu behar izan zuten.

Tamalez horma sendoa aurkitu zuten beltzek. Nahiz eta erasoan jokaldi ederrak egin eta baloia ongi mugitu, AVK Bera Berak aukera guztiak zapuztu zituen.

Eta etxeko jokalarien hutsak ederki baliatu zituen bitan Donostiako taldeak entsegua eta gauzatzearen bidez markagailuan aurrea hartzeko. Beltzek ez zuten taktika aldatu, ordea; erasoan jokatzen jarraitu zuten. Atsedenaldian 0-14koa zen markagailua, ordea.

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak-eko jokalaria, plakaketa jasotzen. TXINTXARRI

Bigarren zatian, joko dinamika berdin mantendu zen. Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RTk entsegu lerrora iristeko ahaleginak egin zituen eta 66. minutuan lortu zuen saria. Aimar Arteagak baloiak entsegu marra igarotzea lortu zuen; Ritxard Yurramendik, berriz, jaurtiketa gauzatu eta aldea murriztu zuten beltzek, 7-14.

Etxeko jokalariak indarberritu zituen egoerak eta amore emateko prest ez zeudela erakutsi zuten. Yurramendik jokoa zuzendu eta jokaldi ederrak egin zituzten. Zoritxarrez AVK Bera Beraren defentsa irmoaren aurka talka egiten zuten behin eta berriro beltzek eta ez zuten markagailuan punturik gehitzerik izan. Garaipena beraz, Donostiara joan zen.

Super Kopako epaile

Bestalde, Jon Ibisate herritarra Batumin, Georgian epaile laguntzaile lanetan aritu zen hilaren 15ean. Europako Super Kopako RC Batumi-Romanian Wolves neurketan marrazain izan zen lasarteoriatarra Pablo Pascualekin batera. Epaile nagusia Iñigo Atorrasagasti izan zen.

Alebinek emaitza ezberdinekin hasi dute txapelketa garaia

Intza pilota eskolako gaztetxoak ederki jardun arren, garaipen bakarra erdietsi dute lehen jardunaldian

Txintxarri

Eskuz banakako Errendimenduko Gipuzkoako txapelketaren lehen jardunaldia jokatu zuten Intza Kirol Elkarteko kideek hilaren 15ean. Alebin mailako lau pilotari izan ziren lehian 1. eta 2. mailan. Michelin kirol gunean bildu ziren ikusleek etxekoen garaipenik ospatu ez arren, jaialdiko bigarren partidan borroka ederra ikusi zuten. Hernanin, berriz, Oier Jauregik Mendiable hernaniarra 2-0 garaitu zuen.

Lasarte-Oriako pilotalekuan 2. mailako partidak izan ziren. Bigarren buruz buruko norgehiagokan Intzako kide Iparragirrek Alde Zaharra-ko Salaberriarekin neurtu zituen indarrak.

Partida zirraragarria izan zen. Bakoitzak puntu bana lortu zuen euren sakeari esker eta berdinketa hausteko azken tantoan erabaki zen garailea. Tamalez aurkariaren aldeko izan zen puntua eta Iparragirreri ihes egin zion garaipenak.

Lehenean, berriz, Lasarte-Oriako elkarteko Ekhi Maiz Intxurreko Garmendiaren aurka lehiatu zen. Nahiz eta Maizek lan ona egin, Alegiko pilotaria ederki moldatu zen herritarraren erasoak zapuzteko eta 0-2 (3-8 eta 2-8) irabazi zuen.

Intzako Iparragirre, jolasean. TXINTXARRI

Garaipen bakarra

Intzako 1. mailako alebinek, aldiz, Hernanin izan zituzten neurketak.

Oier Jauregi ederki borrokatu zen Mendiableren aurka eta 0-2ko (6-8 eta 3-8) markagailuarekin garaipena erdietsi zuen.

Eñaut Huizik ez zuen zorte bera izan. Zabala hernaniarra sendo jardun zen eta Intzako kideak tanto politak egin arren, ahalegina ez zen nahikoa izan; Hernaniko pilotaria 8-3 eta 8-5 gailendu zen.

Junior partaidetza taldeak, ezin garaipenarekin hasi denboraldia

Hitzordu bikoitza izan du Ostadar Saskibaloia ataleko taldeak. Aurkariak nagusi izan dira bi neurketetan

Txintxarri

Ostadar Saskibaloiko junior partaidetza taldeak ez du 2022-2023 denboraldia ongi hasi. Hitzordu bikoitza jokatu behar izan dute Aitor Lasek zuzendutako jokalariek hilaren 15ean. Ligako bigarren jardunaldiko partidaz gain, atzeratutako neurketari ere aurre egin behar izan zioten urdin-beltzek. Partida gogorrak izan ziren Ostadarreko jokalarientzat eta bietan aurkaria gailendu zen.

Zast 2005 ZKEren aurka neurtu zituzten indarrak urdin-beltzek goizean Maialen Chourraut kiroldegian.

Junior taldearen partidako irudia. TXINTXARRI

Zarautzeko taldea garaipenaren bila atera zen hasieratik. Erasoan eta defentsan akatsik ez zuen egin eta kostata jokatu zuen Ostadarrek. Bigarren laurdenean, gainera, aurkariak aldea handitu zuen; 2-20 izan zen partziala. Etxeko taldeak ahaleginak egin arren, ez zuen ezer egiterik izan eta Zastek 25-67 irabazi zuen.

Junior Partaidetza mailako jokalariek ez zuten emaitza gainditzeko denborarik izan, ezta indarberritzeko astirik ere. Ordu batzuk geroago, Azpeitian Inar Optika ISB izan zuten aurrez aurre.

Azpeitiarrak nagusi izan ziren; Ostadarrek, berriz, ez zuen jokatzen jakin eta aurkariak 99-12 irabazi zuen.

Hilaren 22-23ko asteburuan atsedena izango du Aitor Lasek zuzentzen duen taldeak. Beraz, arlo ezberdinak lantzeko tartea izango dute juniorrek.

Buruntzaldeko Ibilbideen Egunean, parte hartze handia

Herritarrek bat egin dute eremuko ibilbideak sustatzeko ekimenarekin. LOTMEko kideek Anie-ra egin dute irteera

Txintxarri

Eguraldi paregabea eta beroa lagun, herritar ugarik Buruntzaldeko ibilbide ezberdinez gozatzeko hautua egin zuten hilaren 16an. Lasarte-Oriako Elizatze plazako kontrol puntutik atera eta Andoain, Usurbil edo Urnieta izan zuten helmuga.

Ostadar Ipar Martxako taldeak Arrasateko Retinosis Gipuzkoa Begisare elkarteko bi kiderekin batera, esate baterako, Aginagara egin zuten irteera. Lasarte-Oriara itzulera, berriz, Arratzain sagardotegitik gora egin zuten. Guztira 17 kilometroko ibilbidea izan zen.

Aniera igoera

Horrez gain, egun horretan bertan, Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko hamabost bat kide eta lagunek Anie mendira egin zuten irteera.

Pierre de Saint Martin-etik 2.507 metroko piramide harritsua igo zuten eta jaisterakoan Pic d'Arlas (2.044 m) ere igaro zuten. Haizea egin arren, egun politaz eta ikuspegi ederraz gozatu zutela adierazi dute.

KOMIKIA

ZORION AGURRAK

Ailitz
Nire printzesak 7 urte beteko ditu, zorionaaaak!! Oso ondo pasa eguna. Asko maite zaitut. Muxu asko. Ama.

Silvia
Zorionak polita. Ama hoberena izateagatik, mila muxu familiaren partetik

Haitz
Zorionak!!! Zortzi urte!! Zein azkar igaro den denbora! Mila muxu familiakoen partetik.

Maitane
Asteburuko jaia ez da Maratoiarengatik izango, zure urtebetze festa ospatzeko baizik! Zenbat bete dituzun kontatzeko, hamar atzamarrak zenbat bider altxa behar ditugu? Zorionak Ttakuneko lankideen partetik!

Haritz
Maratoi osteko ajea, besteoi baino luzeagoa datorkizu zuri, ezta? Zergatik ote?
Guk ere nahi ditugu zuritoa eta patata tortilla pintxoa asteazkenean, e!
Zorionak, Queening!
Uau!

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 20



Larunbata, 22



Igandea, 23



Astelehena, 24



Asteartea, 25



Asteazkena, 26



Osteguna, 27



TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943-37 16 29
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
KIROLDEGIA: 943-37 61 82
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
KIUB: 943-36 16 05
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
DYA: 943-46 46 22
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
UDALTZAINAK: 943-36 24 42
ERTZAINTZA: 943-53 88 40
SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

	3			7	4		8	
		2	3			9		
8		5			1	3		
				4		8		
9		4		3		7	5	
5		3	8			4	2	
4				6				3
		6	4		9		7	
	1		7					4

OHARRA

1970ean jaiotakoen afaria

1970 urtean jaiotako herritzarrentzat kintoen afaria antolatzen ari dira, azaroaren 26rako, Abend jatetxean. Bertaratu nahi dutenek 685 71 08 82 telefono zenbakira (Jon Arroyo) deitu beharko dute azaroaren 1a baino lehen.

Euskararen 10. Maratoialdia

Gu guztion emozioak dantzan jarriko ditu Euskararen 10. Maratoialdiak bihartik aurrera. Hilaren 22an eta 23an funtsezkoa izan da goiz-goizetik xahututako energia berreskuratzea, otorduetan. Txartel ia guztiak saldu dituzte antolatzaileek, baina jakinarazi dute jendea behar dutela janaria eta edariak zerbitzatzeko, larunbateko zein igandeko afarietan. Horretarako prest daudenei honako telefono zenbakira dei dezakete: 646 82 44 66.

Bestalde, iganderako, hilaren 23rako babarrun txapelketa deitu dute antolatzaileek. Okendo plazan izango da eta bertan parte hartu nahi dutenek *maratoialdia@gmail.com* helbidera idatzi behar du, edo 646 82 44 66 telefonora deitu.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 21	ACHA-ORBEA
LARUNBATA, 22	LASA
IGANDEA, 23	LASA
ASTELEHENA, 24	URBISTONDO
ASTEARTEA, 25	GANDARIAS-URIBE
AZTEAZKENA, 26	GIL
OSTEGUNA, 27	DE ORUE

EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00
M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

'URTE OSOKO GUARDIAK' APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen
Informazio gehiago *www.cofgipuzkoa.com* webgunean eskuragarri.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Apartamentu bat dut Benidormen, eta alokatzeko eskaintzen dut irail eta urrian, hamabost egunez edo hilabete osoz. Harremanetarako zenbakia, 677 35 18 35 (Lourdes)

Errioxan, Alesancotik gertu, 60 metro karratudun apartamentua alokagai. 60 metro karratudun lorategia du, bista paregabeak, baita igerileku komunitarioa ere. Irailera arte alokagai, hamabostaldika. Nahi izanez gero argazkiak bidaltzeko prest. Harremanetarako zenbakia: 666 88 0917.

PARTEKATU

Gela bat alokatzen dut Lasarte-Orian, erdialdean, partekatutako etxe batean. Harremanetarako zenbakia: 666 32 05 20.

LANA

ESKAINTZA

15 urteko neska bati euskara klase partikularrak emateko pertsona bat behar da. Harremanetarako zenbakia, 631 57 15 40 (Arratsaldez deitu).

ESKARIA

Kurtsoan zehar haurrak arratsaldez zaintzeko prest. Esperientzia dut. Harremanetarako zenbakia, 695 18 41 79.

Adineko pertsonak zaintzeko prest nago. Esperientzia dut eta baita paperak ere. Harremanetarako zenbakia: 627 20 61 10.

Umeak zainduko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 695 18 41 79.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

SALEROSKETA

SALDU

Su egurra saltzen da (haritza), tximinirako, ekonomikarako... Harremanetarako zenbakiak: 667 23 23 00 eta 616 83 09 02.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

Unibertsitateko ikaslea errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest dagoena, goizez nahiz arratsaldez. Harremanetarako zenbakia, 688 65 56 93.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia.
12 €
(BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646 82 44 66

ESKELA

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:
Lide Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola, Egoitz Epelde, Endika Mertxan, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

TXINTXARRI-k ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA

LASARTE-ORIA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

'Un héroe samurai'
Igandea 30: 17:00.

'El vasco'
Igandea 30: 19:30.

ANDOAIN

BASTERO

'Dolphin Boy'
Igandea 23: 17:00.

'Los renglones torcidos de Dios'
Igandea 23: 19:30.
Astelehena 24: 19:30, 22:00.

'Mañana'
Asteartea 25: 17:00.

HERNANI

BITERI

'Aly&Ava'
Ostirala 21etik astelehena 24ra: 22:30 (egunero).

'Lunana, un yak en la escuela'
Larunbata 22: 16:30.
Igandea 23: 16:30.

USURBIL

URBIL

'Black Adam'
Ostirala 21: 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:00, 21:00, 21:45, 22:00.
Larunbata 22: 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:00, 21:00, 21:45, 22:00.
Igandea 23: 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:00, 21:00, 21:45, 22:00.

'Smile'
Ostirala 21: 15:55, 19:30, 22:15.
Larunbata 22: 15:55, 19:30, 22:15.
Igandea 23: 15:55, 19:30, 22:15.

'Halloween ends'
Ostirala 21: 16:50, 19:35, 22:20.
Larunbata 22: 16:50, 19:35, 22:20.
Igandea 23: 16:50, 19:35, 22:20.

'Los renglones torcidos de Dios'
Ostirala 21: 18:30, 21:55.
Larunbata 22: 18:30, 21:55.
Igandea 23: 18:30, 21:55.

'Lyle, Lyle Crocodile'
Ostirala 21: 15:45, 18:25, 21:05.
Larunbata 22: 15:45, 18:25, 21:05.
Igandea 23: 15:45, 18:25, 21:05.

'Tadeo Jones 3: La tabla esmeralda'
Ostirala 21: 16:25.
Larunbata 22: 16:25.
Igandea 23: 16:25.

LASARTE-ORIA **Euskararen jaia.** Euskararen 10. Maratoialdia hasiko da, betiko Maratoia eta Euskaraldia uztartuko dituen 42 eguneko egitasmoa. Sentitu izena du lehen faseak, eta hilaren 22an eta 23an egingo dute. 40 orduz etenik gabe euskaraz aritzeko helburuz, makina bat jarduera prestatu dituzte Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Ttakun Kultur Elkarteak, ekimenak dinamizatuko dituen zortzikoteko kideekin batera. Iarunbat goizeko 08:00etatik hasita. Ia guztiak Okendo plazako oholtzan izango dira, eta gainerakoak, inguruetan, Kale Nagusian eta erdigunean zehar.
Hilaren 22an eta 23an, Okendo plaza eta inguruetan.

LARUNBATA 22

LASARTE-ORIA **Euskararen jaia**
Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak elkarlanean antolatzen duten Euskararen 10. Maratoiak hartuko du herria. Hauek izango dira lehen eguneko jarduerak:

08:00etan, txupinazoa udaletxe zaharreko arkupeetan.
08:15ean, hasiera ekitaldia Okendo plazan.
08:45ean, zortzikoteko kideen diana herrian barrena.
09:05ean, gosari literarioa, Okendon.
09:30ean, baserritar eta artisau azokaren irekiera, Kale Nagusian.
10:20ean hasita, Euskal Jaiak herriko ikastetxeekin, Okendon.
12:35ean, baserritar eta artisauei aitortza, Okendon.
13:05ean, proba mistoa, Kale Nagusian.
13:30ean, haurren bazkaria eta bazkaloste mundiala, Okendon eta Askatasuna parkean.
14:30ean, helduen bazkaria: euskal paella. Okendon.
14:45ean, antigeno proben sekretuak argitzen, Okendon.
15:05ean, GuruBuruak, Okendon.
15:25ean, euskaltegiak, Okendon.
16:20ean, musika eskola, Okendon.
16:40ean, Gazte Klubekoen debatea, Okendon.
17:05ean, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldia, Okendon.
18:15ean, haur jaioberriei ongietorria, Okendon.
19:05ean, zunbatoia, Okendon.
20:15ean, (Min)bizi desfilea, Okendon.
20:45ean, Elektropottote txaranga ibiliko da erdigunean barrena.
21:30ean, afaria, Okendon.
22:15ean, Palbongoa, Okendon.
00:50ean, Rukularen kontzertua, Okendon.
01:50ean, 'Inon baino alaiagoa izanen da', Okendon.
02:40ean, Louh taldea, Okendon.
03:25ean, DJ Ixter eta DJ Fantasia, Okendon.

Herrian zehar, 08:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA **Kontzertua**
Euskal Herriko Andaluziar Etxeen Federazioak (FARAE) kontzertu bat antolatu du. Los de Sierra Morena taldeak egingo du emanaldia. Gonbidapena behar da aretora sartzeko.
Kultur etxea, 18:30ean.

IGANDEA 23

LASARTE-ORIA **Euskararen jaia**
Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak elkarlanean antolatzen duten Euskararen 10. Maratoiak hartuko du herria. Hauek izango dira bigarren eguneko jarduerak:

08:05ean, salda gosaltzeko, Okendon.
08:15ean, txistularien diana, herrian barrena.
08:40ean, babarrun txapelketaren hasiera, Okendon.
09:05ean, diafreoari buruzko mahai ingurua.
09:30ean, ipar martxa ikastaroa, Okendon.
10:05ean, Bizipoza azoka eta erronkaren hasiera, Kale Nagusian.
10:30ean, kirol egokitua lantzeko jokoak, Kale Nagusian.
11:05ean, Kukukako ikasleen emanaldiak, Okendon.
11:35ean, Xumela koruaren kantu jira, Oaintxe in deu txarangarekin batera, herrian zehar.
12:10ean, herri kirolak, Okendon eta Askatasuna parkean.
13:05ean, herriko zenbait kirolari oholtzan, Okendon.
13:55ean, Aiora Belartieta arraunlaria Kontxako Bandera astintzen, Okendon.
14:05ean, Oaintxe in deu txarangaren saioa, Okendotik abiatuta.
14:30ean, babarrun txapelketaren sari banaketa, Okendon.
14:40ean, babarrun jana Okendon, Patxi Etxeberriaren bertsoek girotuta (bideoz).
15:30ean, herriko bertso eskolako ikasleen saioa, Okendon.
16:05ean, Maratoiko kide ohiei aitortza, Okendon.
17:30ean, Bizipoza Jaia, Okendon.
18:30ean, Kukukako ikasleen emanaldiak, Okendon.
19:05ean, erromeria eta Plaza Dantza, Okendon.
20:05ean, Ihitten elkartearen aurkezpena, Okendon.
20:20ean, Sorgin Dantza herrikoia, Okendon.
21:00etan, afaria, Okendon.
22:05ean, zapidunei aitortza, Okendon. Lasarte-Oriako hiru belaunaldi desberdinetako zenbait emakume omenduko dituzte.
22:45ean, Alboka, Erketz eta Zero Setteren kontzertu bateratua, Okendon.
23:35ean, amaiera ekitaldia, Okendon.

Herrian zehar, 08:00etatik aurrera.

ASTEARTEA 25

LASARTE-ORIA **Literatura**
Olga Serrano herritarrak *Juguetes de niño sádico* eleberria aurkeztuko du jendartean. Sarrera, doan.
Kultur etxeko hitzaldi aretoa, 19:00etan hasita.

ASTEAZKENA 26

LASARTE-ORIA **Literatura**
Haurrentzako ipuinen saio bat egingo dute Kontu Kantoiko lagunek. Sarrera, doan.
Kultur etxeko hitzaldi aretoa, 17:30etik aurrera.

OSTEGUNA 27

LASARTE-ORIA **Literatura**
Alaine Agirre idazleak aurkezpen solasaldi bat egingo du 14 eta 18 urteko nerabeentzat. Sarrera doakoa da ikus-entzuleentzat.
Kultur etxeko hitzaldi aretoa, 18:30ean hasita.

LASARTE-ORIA **Zinema**
Okendo Zinema Taldeak urriko bigarren proiekzioa egingo du: *Modelo 77* filma proiektatuko du. Sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 22:00etan.

OSTIRALA 28

LASARTE-ORIA **Musika**
Danok Kide elkarteak XVIII. Musika Topaketak antolatu ditu Lasarte-Oriako Udalarekin batera. Horren barruan organo eta kantu emanaldi bat programatu dute.
Ama Brigitarren komentua, 19:30etik aurrera.

IGANDEA 30

LASARTE-ORIA **Zinema**
Un héroe samurai filma emango dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute.
Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA **Zinema**
El vasco filma proiektatuko dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 19:30ean.

EUSKARAREN
10. MARATOIA
ETORRI ETA SENTITU!
LASARTE-ORIA urriaren 22an eta 23an
musika
txosna
ikuskizunak
EUSKARAREN MARATOIALDIA
eta 10 ordu euskaraz!
sentitu
prestatu...
eta ekin!
deskargatu programa
LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO
Tta kun
Kultur Elkartea

Gure Etorkizuna,
Orain eraikitzen da.
Ekonomia modernizatuz.
Mundua aldatzen ari da, eta ekonomiaren eraldaketa azkartzen. Hori ikusita, Gipuzkoako Foru Aldundia gure lurraldearen etorkizun ekonomikoa lantzen ari da duela lau urtetik, Etorkizuna Eraikiz egitasmoaren bidez.
Sartu etorkizunaeraikiz.eus webgunean eta ikusi gipuzkoarrok zer egiten ari garen gure etorkizunaren alde.
Gipuzkoako Foru Aldundia
ETORKIZUNA ORAIN
Natur Klima
Mubil
Adinberri
Lab-e
Zdeo